

Gizarte-bazterkeriaren aurkako politikak EAEn: oraina, erronkak eta etorkizuna

Gorka Moreno Márquez

DOI: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.85.2009.06>

Sumarioa: 1. Sarrera.—2. Deszentralizazioan oinarritutako eredia.—3. Gaur egungo egoeraren azterketa. 3.1. Gizarte-bazterkeriaren aurkako politiken diagnostikoa eta hobekuntzarako proposamenak. 3.2. Gizarte-bazterkeriari aurre egitea eragozten duten egiturazko faktoreak.—4. Herritartasun oinarritzko errenta itsasargia izan al daiteke gizarte-bazterkeriaren aurkako politikentzako?—Bibliografia.

Laburpena. Hitz gakoak.—Resumen. Palabras clave.—Abstract. Keywords.

1. Sarrera

Artikulo honek gizarte-bazterkeriaren aurka eta gizarteratzea sustatzeko euskal erakunde publikoek bultzatzen ari dituzten neurri politiko ezberdinak aztertzen ditu. Neurri hauen ardatza Oinarrizko Errenta da, gizarte babeserako azkeneko sare bezala jaiotzen den gutxieneko diru-sarreraren programa (Moreno, 2000) eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko neurririk garrantzitsuenena dena EAEn. Gutxieneko diru-sarreraren garapena gure erkidegoan 1989. urtean hasi zen, Familiarentzako Gutxieneko Diru-Sarrera izeneko programa martxan jarri zenean. Honen egikaritzan Revenu Minimum d'Insertion —RMI— frantziar ereduaren eragina oso nabaria izan zen (Aguilar, Gaviria eta Laparra, 1995). Azken honetan, gutxieneko diru-sarra bi ataletan bereizten zen: prestazio ekonomikoa alde batetik, eta gizarteratzeko eskubidea, bestetik. 1990. urtean aipatutako neurriaren izena aldatu egin zen eta 2000. urterarte Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-Sarrera bezala ezagutu izan zen —Ingreso Mínimo de Inserción—. Esan bezala, 2000. urtetik aurrera eta gizarte eragile ezberdinek sustaturiko Herritar Lege-Ekimen baten bidez, Eusko Legebiltzarrak Gizarte-Eskubideen Gutun Legea onartu zuen, honen bidez gutxieneko diru-sarrera Oinarrizko Errenta izena hartzera pasa zelarik. Euskal gutxieneko diru-sarrera Estatu osoko lehenengoa izan zen eta beste erkidegoetarako eredia eta bidea zehaztu zuen 90. hamarkadako lehenengo urteetan. Horrela bada, 1990. urtean Madril, Kataluña eta Kantabriak jada bazuten gutxieneko diru-sarreraren programen bat.

Estatu mailako gutxieneko diru-sarrereri dagokienez, aipatzekoa da programa ezberdinek erkidego izaera dutela eta bakoitzak bere eredia garatu eta jarraitzen duela. Honek errealitate anitza eta ezberdina ahalbidetzen du, batzutan ereduen arteko gehiegizko zatiketa ere ematen delarik (Roberts, 2001; Gavira eta González, 2002). Azken hau da, hain zuzen ere, Estatu mailako gutxieneko diru-sarrereren ezaugarririk esanguratsuena: ereduen arteko ezberdintasunak oso nabariak dira. Testuinguru honetan, euskal eredia Estatuan ematen den eredurik garatuena da. Honen atzetik, beste batzuk kokatuko lirateke, nafarra, madrildarra edota katalandarra, besteak beste. Gutxien zabaldurik dauden ereduen artean kanariarra, Gaztela-Leongoa, Extremadurakoa edota Kantabriakoa egongo lirateke (Martínez Torres, 2001). Aurreko lerroetan esandakoa datuen bidez ere baieztatu daiteke. Horrela, 2002. urtean Estatu osoan gutxieneko diru-sarreretan gastatzen zen diruaren heren bat euskal Oinarritzko Errentan egiten zen (SIIS, 2005: 16). Era berean, Estatuan gutxieneko diru-sarrereren onuradunen %20 EAEn kokatzen da (Laparra, 2004).

Azken urte hauetan ereduen arteko ezberdintasunak ez dira baretu eta zenbaitetan handitu egin dira, gehien bat garatuen dauden eta garapen gutxiko ereduen artean. Lehenengo taldean euskal eredia, nafarra, madrildarra edota katalandarra azpimarratu daitezke. Honen harira, eta arlo honetan Estatu mailan pertsona aditua den Miguel Laparraren ustez, *basamortuko igarobidetzat* jo daiteke azken urte hauetan Estatuan gutxieneko diru-sarrereren inguruan eman den garapena eta gaur egungo egoera (Laparra, 2004). Era berean, egile bat baino gehiago da euskal eredia Europako beste sistemekin erkatu daitekeen bakarra dela esaten duena (Moreno, Matsaganis, Ferrera eta Capucha, 2003; Laparra, 2004).

Testuinguru hau kontutan harturik eta euskal ereduak Estatu osoan dauden ereduen artean erakusten duen kokapena kontutan harturik, interesgarria suerta daiteke honen inguruko azterketa zabalagoa egitea. Horretarako, honen inguruko ezaugarri nagusienak landuko dira. Baina honetaz gain, honi loturiko beste hainbat politiken nondiknorakoak ere zehaztuko dira. Halaber, etxebizitzetako gastuak ordaintzeko gehien bat erabiltzen diren Gizarte Larrialdietarako Laguntzak —GLL—, formakuntza eta enplegua partekatzen duten babesturiko-enplegu programak —Auzolan—, gizarteratzeko sortu diren enpresak edota enplegurako pizgarriak landuko dira ere.

Neurri ezberdin hauen ezaugarriak aztertu eta gero, euren gabezi adierazgarrienak aipatuko dira eta Herritartasun Oinarritzko Errentak honen inguruan zer esan dezakeen planteatuko da (Van der Veen eta Van Parijs, 1988; Van Parijs, 1992; Raventós, 1999, 2000; Moreno, 2008). Azken hau izaera unibertsala, norbanakoarena eta orokorra den gizarte-politika izanik, ezberdintasun batzuk azaltzen ditu gaur egun EAEn ematen den gutxieneko diru-sarrereren ereduarekin.

Artikuloan agertzen den informazioa lortzeko, sakonezko elkarrizketak egin zaizkie gizarte-politiketako arduradun ezberdinei. Elkarrizketatu

egin den lehenengo pertsona azken legealdiko —2005-2009— Gizarteratzeko Sailburuordea izan da. Sailburuordetza hau izanik gizarte-bazterkeriaren aurkako neurri nagusien finantziarioa egiten duena, hala nola, Oinarrizko Errenta, Gizarte Larrialdietarako Laguntza edota gizarte zein lan gizarteratzeko ematen diren neurri ezberdinak (1. Elkarrizketa). Bigarren pertsona Gizarte Gaietarako Sailburuordea izan da. Kasu honetan gizarte-bazterkerian edota zaurgarritasunean kokatzen diren kolektibo zehatzekin lan egiten da sail honetan (2. Elkarrizketa). Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Ahalduna elkarrizketatu izan da, hauen eskumenak arlo honetan garrantzitsuak izanik, gehien bat gizarte zerbitzu espezializatupei dagokionez (3. Elkarrizketa). Artikulo honetan zehar, elkarrizketa zati bakoitzaren atzean honen zenbakia eta pertsonaren kargua aipatuko da, momentu guztietan argi egoteko zeini dagokion elkarrizketa aipua: (E 1: Gizarteratzea, Eusko Jaurlaritza), (E 2: Gizarte Gaiak, Eusko Jaurlaritza), (Gizarte Ekintza: Foru Aldundia) (1).

Elkarrizketak aukeratzeko momentuan, gizarte-bazterkerian zeresana duten administrazio ezberdinei ahotza ematea izan da lehenengo helburua. Era berean, elkarrizketetan ibilbide pertsonala zein ideologiko ezberdinetako pertsonak aukeratzeko hobetsi da, honen bidez gerturapen teoriko-praktiko pluralagoak izateko eta planteatutako gaien inguruko gerturapen zabalagoa lortzeko. Elkarrizketa hauen bidez politika publiko hauetako egitura zein organigraman sakondu da. Honetaz gain, arlo honen inguruan agertzen diren eztabaidetan sakontzea ere helburuetako bat izan da.

Jasotako informazio guztia hiru atal ezberdinetan bildu egin da. Lehenengoan, gaur egun EAeko instituzioek gizarte-bazterkeriaren aurka zuzentzen dituzten politika publikoen azterketa egiten da, hauen egitura, eskumenen banaketa eta erakunde ezberdinen arteko koordinazioa bultzatzeko organoak aztertzen dira. Bigarren atal batean, ematen diren politika ezberdinen ebaluazioa egiten da, bertan azpimarratzen diren gabeziei arreta berezia jarritz. Azkeneko atal batean, eta bigarrenari lotuta, Herritartasun Oinarrizko Errentaren inguruko hausnarketa egiten da, gehien bat etorkizunera eta epe luzera begira.

2. Deszentralizazioan oinarritutako eredia

Atal honetan azpimarratu eta landuko den lehenengo aspektua gizarte bazterkeriaren aurkako politiken egitura instituzionala zein den da. Zentzu

(1) Artikulo honetarako elkarrizketak egin direnean 2005-2009 legealdia zegoen indarrean, elkarrizketak zehazki 2008. urteko maiatzean egin ziren. Beraz, elkarrizketatutako pertsonak jada gaur egun ez dira arlo hauen arduradunak. Dena den, emandako informazioa erabateko gaurkotatua du.

honetan, 2009. urteko hauteskunderen ondorengo Gobernu aldaketa baino lehen, politika hauen zatirik garrantzitsuena Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte-Segurtasuneko Sailean kokatzen zen, Gizarteratzeko Sailburuordetzan zehazki.

Eman den aldaketa eta gero, atal hau Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailean kokatzen da gaur egun. Gizarteratzeko Sailburuaren hitzetan, gizarte bazterkeriari aurre egiteko politiketan hiru atal nagusi bereiztu daitezke. Lehenengo bietan prestazio ekonomikoak kokatuko lirатеke, hau da Oinarrizko Errenta alde batetik eta Gizarte-Larrialdietarako laguntzak bestetik. Lehenengoaren helburua arazo gehien dituzten pertsonen gutxienezko diru-sarrerak bermatzea da, bigarrenaren kasuan etxebizitzarako gastuak ordaintzeko erabiltzen da gehien bat. Azkenik, hirugarren zatia egongo lirateke, pertsona hauentzat ezarri diren gizarteratze-ibilbideak alegia. Azken hauen artean Auzolan programak deritzonak kokatzen dira, bertan enplegua eta formakuntza partekatzen den babesturiko enplegu mota izanik.

«Nik esango nuke hiru neurri nagusi daudela. Etxebizitza eta elikadura bezalako oinarrizko beharrezkoak babesten dituzten bi prestazio ekonomikoak, Oinarrizko Errenta eta Gizarte-Larrialdietarako Laguntza. Eta gero, hirugarrenik, gizarte eta lan gizarteratzeko prozesu guztiak, GKEk eskaintako laguntzetatik oinarrizko gizarte zerbitzuetara. Gaur egun 120 Auzolan baino gehiago jarri ditugu martxan, bertan 1.000 pertsona baino gehiago partehartzen dutelarik. Eta azkenik, gizarteratze-entresak daude, gaur egun 30 baino gehiago daude eta 200 bat onuradun baino gehiago daude» (E 1. Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Maila administratibo berdinean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak ere arlo honetan zenbait eskumen ditu. Gehien bat legeak egitearena da honen eskumen nagusia. Dena den, zeharka egindako ekimen eta diru-laguntzen bidez gizarte-bazterkerian kokatzen diren pertsonen laguntza ezberdinak eskaintzen die sail honek, adibidez hirugarren sektoreko erakundeei emandako diru-laguntzen bidez edota udal mailako oinarrizko gizarte zerbitzuen garapena sustatzeko prestazio ekonomikoaren bidez, gehien bat menpekotasunari lotuta azken hauek. Zehazki, sail honek gizarte erakunde ezberdinekin batera martxan jarri ditu gizarte-bazterkerian dauden hainbat kolektiboetarako egoitza-baliabide ezberdinak. Esan bezala, zeharkako esku-hartzea da, arlo hauetako eskumen gehienak Foru Aldundien esku bait daude, gizarte zerbitzu espezializatuen eskumena alegia. Drogomenpekotasuna, haurtzarora edota menpekotasuna duten kolektiboetarako zerbitzuak egongo lirateke hauen artean. Bere eskumen lege-egilearen barruan 2005-2009 legealdian zehar Gizarte Zerbitzuetarako Lege

berrian lan egin du Sailburuordetzak eta azkenik 2008. urteko abenduan onartu da legea (2).

«Gaur egun dugun eskumena arautzea, planifikatzea, legea egitea, koordinazioa etabar da. Baina diru-laguntzak ere ematen dizkiogu gizarte-erakundeei, hauetariko asko baztertuta dauden pertsonekin lan egiten dutelarik. Bazterkerian edo bazterkeria arriskuan daudenentzako etxebizitza sare bat eraiki nahi dugu ere. Hirugarren sektorearekin lanean ari gara. Aurten ere, aurreko legealdiarekin konparatuz berria den zeozer ere hasi dugu, udaletxei diru-laguntzak ematen dizkiogu, gehien bat menpekotasunari aurre egiteko. Eta azkenik, Gizarte Zerbitzuen Legea dugu, guretzat norabide aldaketa suposauko duena eta gizarte zerbitzuen garapena ahalbidetuko duena» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Eusko Jaurlaritzaren barruan, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politikan ematen den eskumenen zatiketa hau gehien bat negoziazio eta tirabira politikoen ondorioa da. Horrela, irizpide eraginkorrak kontutan hartu beharrean askotan gobernua osatzeko beharra bezalako irizpideak dira lehentasuna izaten dutena horrelako zatiketetan. Aurreko legealdian, adibidez, hiru alderdien arteko gobernua izanik, denok *gustora* gelditzeko banaketa egitea erabaki zen, nahiz eta honek trabak eta arazoak sortu egunero kudeaketan. Errealitate hau agintari ezberdinek azpimarratzen dute, alderdi batekoa zein bestekoak, politika publikoak aurrera eramateko oztopo bat suposatzen duela argudiatuz. Aipatutako gobernu aldaketaren ondorioz, alderdi bakarra dago gobernuan —PSE— eta honek irtenbide egokiagoa lortzeko aukerak irekitzen ditu hasiera batean behintzat.

Eskumenen arloarekin jarraituz, zatiketa ez da bakarrik maila horizontalean ematen —maila eta administrazio bereko arlo ezberdinen artean—. Administrazio egituran behera eginez gero argi gelditzen da Foru Aldundiek zein udaletxeek eskumen anitz dituztela gizarte-bazterkeriari loturiko gai eta ataletan.

Foru Aldundiaren kasuan, hiru esku-hartze esparru berezi daitezke. Alde batetik, prestazio ekonomikoan atala, bertan subsidio eta pentsioetarako osagarriak, gizarteratzeko laguntzak edota Oinarrizko Errenta osatzeko Foru Aldundi batzuk eskaintzen duten diru kopurua egongo lirateke.

(2) Azkeneko hilabete hauetan, zehazki 2008. urteko abenduan, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko bi lege berri eta garrantzitsu onartu dira. Aipatutako Gizarte Zerbitzuen Legea eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko Legea. Bigarren hau da, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko neurri gehien eta garrantzitsuenak zehazten dituena. Hurrengo hilabetetan zehar ikusi beharko da nola gauzatzen den bi lege hauen dekretuen bidezko garapena. Gizarte Zerbitzuen Legean aipatzen denaren arabera, adibidez, dekretua 2009. urteko abendurako prest egon beharko zen.

Bigarrenik, gizarte-bazterkerian edo zaurgarritasun egoeran kokatzen diren pertsonen gizarte-akonpainamendua egongo litzateke, gehien bat noiz behinkako edota egoitza arretaren bidez. Azkenik, hirugarren sektorearekin sinatutako diru-laguntza zein konbenioak egongo lirateke.

«Nik hiru atalei buruz hitz egingo nuke. Bat, prestazio ekonomikoen atala da, bertan Oinarrizko Errentarako eta prestazio asistentzialerako osagarriak eta gizarteratzeko laguntzak izango genituzke. Akonpainamendu zerbitzuan, harrera, diagnostikoa, esku-hartzearen planifikazioa eta ateratzeko kudeaketa sartzen dira. Azkenik, hirugarren ildo batean tradizionala den lana egiten dugu, diru laguntzak ematearena, baina hau guretzat gutxienezkoa da. Gure ustez diru-laguntzen bidez erakundeek ez dute egonkortasuna lortzen, horregatik konbenioen alde jo dugu argi eta garbi» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Udaletxeen kasuan, oinarrizko gizarte zerbitzuak azpimarratu behar dira nagusiki, arazoak dituzten pertsonentzako *lehenengo atea* izaten dira eta. Gainera, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izanik askotan arazoak era goiztiarrean detektatzeko aukera handiagoak izaten ditu. Oinarrizko gizarte zerbitzuen beste zereginetako bat informazioa, aholkularitza eta orientabidea eskaintzearena da eta behar izanezkeroko beste baliabide batera deribatzearena, Foru Aldundiaren zerbitzu espezializatuetara gehienetan.

Ikusten dugunez, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politiketan hiru administrazio ezberdin esku-hartzen dute, bakoitzak dituen funtzio eta esku-menen baitan. Oinarrizko Errenta bera dinamika hauen adibide ezin egokiagoa da, hiru administrazio eta maila hauen partehartzea ematen bait da honen kudeaketaren momentu edo atal bakoitzean. Oinarrizko Errentaren eskaera udaletxeetan egiten da, ebazpena Foru Aldundietan —hauek ere osagarriak eskaintzen dituzte— eta azkenik, finantziarioa Eusko Jaurlaritzaren esku gelditzen da, Gizarteratze Sailburuordetzaren esku zehazki. Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen kasuan, eskaera zein ebazpena udaletxearen eskumena dira, finantziarioa Eusko Jaurlaritzarena izanik. Era berean, udaletxeek prestazio honentzat diru gehiago jarri dezakete osagarri modura. Auzolan bezalako gizarteratze-programetan, kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren esku gelditzen da, baina programa hauetan partehartu dezakete Foru Aldundi zein udaletxe ezberdinak. Azken hauen artean, esaterako, Gasteiz edota Bilboko udaletxeek hainbat Auzolan programa martxan jarri dituzte, eurek bakarrik edota mankomunitateen bidez.

Eusko Jaurlaritza barruan zein beste administrazioen artean ematen den eskumenen banaketa honek instituzioen arteko koordinazioa dakar

halabeharrez, ezinbesteko elementua izanik EAEn ematen diren politika publiko ezberdinak ondo ulertu ahal izateko. Horrela izanik, koordinazioa eta jarraipena egiteko batzorde ezberdinak daude, bertan aipatutako politika eta neurri ezberdinetan partehartzen duten instituzio zein erakundeek biltzen direlarik. Oro har, koordinazio organu hauen balorazio ona eta baikorra egiten da.

«Gizarteratze batzordean gobernuarekin izaten ari dugun partehartzea ona izaten ari dela uste dut. Bertan, Gizarteratzerako Sailburuordetzaren sostenguarekin, politiken garapen eta jarraipenerako erakunde eta instituzio ezberdinak biltzen ari gara» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Jarraipenerako batzorde bat badago eta han gizarte diagnostikoak egiten dira. Eta honetaz gain, Gobernua, EUDEL edota Foru Aldundiak biltzen diren horietakoak» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Erakunde ezberdinen arteko harremana ona eta arina da» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Dena den, koordinazio horretan hobekuntzarako aukerak ere antzematzen dira, lege edota eskumenen interpretazioan sortzen diren desadostasunetan adibidez. Honen inguruan azpimarratzen den arazorik larriena, koordinazio ezarengatik gizarte-politika zein gizarte-bazterkeriara zuzendutako politiketan lurralde historikoen artean ezberdintasunak sortzearena da. Beldur hau, esaterako, oso argi ikusi izan da Gizarte Zerbitzuen Legearen eztabaidan. Azkenik, *Gizarte Zerbituzetarako Euskal Sistema* ezarri egin da legearen bidez eta honen arabera edozein euskal herritarrari tratua bera izatea bermatzen zaio, edozein izanik bizi den lurralde historikoa. Nahi hau gauzatzeko, Eusko Jaurlaritzak ikuskapen zerbitzu orokorra zehaztu du, benetan berdintasuna ematen dela baieztatu ahal izateko. Honen zerbait istilu sortu ditu Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundien artean. Oraindik, dekretua garatzeke dagoenez, ikusi beharko da nola bideratzen den gai hau.

«Orain, adibidez, gizarte langintza bateratzen siatzen den esku-hartze diagnostikoa egiteko aplikazioarekin arazoak izaten ari ditugu. (...) Foru Aldundiek ebazpen funtzioa dute eta hor ere arazoak sortzen ari dira kudeaketa, aplikazio edota ebazpen irizpideen bateraketa ematerako momentuan. Hobeto funtziona zezakeen, hor arreta berezia jarri behar dugu» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Koiunturen edota batek diru gehiago zuelaren arabera osatu ditugu prestazio batzuk. Nik uste dut hor gogoetarako leku bat dagoela. Erkidego mailan prestazioak bateratu behar-ko lirateke, niretzat gauza garrantzitsua da» (E 3. Gizarte Ekin-tza. Foru Aldundia).

«Gizarte zerbitzuen sistemak nolabaiteko zatiketa dauka eragile asko partehartzen bait dute erabakiak hartzeko mo-mentuan. 200 udaletzek baino gehiago dute aukera gizarte zerbitzuetako aurrekontuaren inguruan erabakiak hartzeko eta honen arabera laguntzak handiagoak edo txikiagoak izateko. Gauza bera gertatzen da Foru Aldundiekin. Hortaz, gizarte zer-bitzuetako estaldura zein arretan batzuetan desorekak sortzen dira. Eragileen gehiegizko aniztasuna ematen da eta hau ho-rrela izanik zaila da gutxieneko oinarri komunak dituen politika egitea» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Aipatutako ezberdintasun hauek askotan instituzio ezberdinen boron-date politikoaren esku gelditzen dira eta hirugarren adina edota zenbait oinarritzko gizarte zerbitzuetan ikusi daitezke. Baina zuzenean ere Oina-rrizko Errentan bertan topa daitezke aipatutako lurralde historikoaren ara-berako estaldura ezberdinak. Horrela, Foru Aldundiek Oinarritzko Errenta osatzeko ematen duten diru-laguntza ez da berdina izaten lurralde guz-tietan, hauen kopurua aurrekontu, borondate politiko edota instituzio ba-koitzak jartzen dituen irizpideen menpe gelditzen direlarik. Bizkaia eta Arabako kasuetan, orain dela bi urte adibidez, osagarri hauek Oinarritzko Errenta jasotzen zuten onuradun guztientzat izaten ziren bitartean Gipuz-koan soilik 60 urte gorakoentzat izaten zen. Gaur egun ere laguntza hauek zenbait Foru Aldundietan ematen dira. Egoera hau ez da berria eta Ara-rtetek jada 1999. urtean egindako txosten batean arrisku hau plazaratu eta salatu egiten zuen (Ararteko, 1999), Gizarte Gaietarako Sailburuordeak ai-patzen duen bezala:

«Arartekok arazo hauek aipatzen dituen hainbat txosten ditu. Ematen du azken urte hauetan ezberdintasun hauetaz kontzienteagaoak garela eta zenbait gauza egiten ari dira. Atzeratuago dauden udaletxe zein Foru Aldundiek diru gehia-go erabiltzen ari dira arlo honetan...» (E 2: Gizarte Gaiak. Eus-ko Jaurlaritza).

Azkenik, eta politika ezberdinen ezaugarriak eta hauen eskumenen ba-naketa komentatu ondoren, elkarrizketatuen artean garrantzitsua den ele-mentu bat landuko da. Jadanik aipatu izan da instituzioen arteko koor-

dinazioa eta elkarkidetzeta elementu inportanteak direla. Honetaz gain, hirugarren sektorearekin instituzio ezberdinek hasitako prozesua adierazgarria da ere, azken urteetan bultzatu den koordinazioa nabarmentzekoa izanik. Harreman hauek gauza berria suposatzen dutela eta politika publikoen kudeaketa zein eraketan oso baliogarriak izaten ari direla azpimarratzen da. Idei hau ulertzeko, eta administrazioko zuzendariak honi ematen dioten garrantzia hobeto ulertzeko ezin da alde batera utzi hauetako batzuk euren bizitzan zehar aktiboki parte hartu dutela intentsitate gutxiago edo gehiagorekin mota honetako erakundeetan.

«Esku-hartze zehatzaren atalean hirugarren sektorearen errekonozimendu argia ikusten dugu eta zehatzago oraindik gizarteratzean lan egiten dutenetan. Nire ustez oso dinamikoa eta berriztatzailea den hirugarren sektorea dugu gure erkidego autonomoan. Nire ustez, testuinguru horretan aukera handiak sortzen ari dira hirugarren sektorean» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Hainbat elkarrekin batera eta nik politizatutako joko nukkeen prozesua eginez, eskaini nahi ditugun zerbitzuak zehazten saiatu gara. Argi eta Garbi konbenioen aldeko apostua egin dugu erakunde ezberdinekin, honen bidez harremana askoz ere egonkorragoa da, zerbitzuari dagokionez baina baita ere finantziarioari dagokionez» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

3. Gaur egungo egoeraren azterketa

Gaur egun indarrean dauden gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politika publikoei dagokionez, arduradun politiko ezberdinek balorazio orokor nahiko ona egiten dute, estaldura handia, ereduaren garapena edota europar mailako hainbat politikekin konparatu daitekeen eredu delatuz, besteak beste. Zentzu honetan, guztien adostasuna ematen da euskal eredu Estatuko lehenengoa dela esatean, eta bereziki Oinarrizko Errentaren balioa eta ezaugarriak azpimarratzen dira. Ikerketa ezberdinez, jada sarreran ikusi den bezala, ideiak hainbaieztatzen dute. Elkarriketatutako pertsonak azpimarratzen duten beste elementua egindako politikak zentzuetan gizarte bera baino aurrerago joan direla da, nolabaiteko lan pedagogikoa egin dutelarik populazioaren aurrean gizarte bazterkeriaren arazoa eta honi aurre egiteko hartu behar diren neurrien inguruan. 1989. urtean jada ezarri zen Familiarentzako Gutxieneko Diru-Sarrera horren adierazlea da eta euskal gizartearen zein beste erkidegotan eragina nabarmena izan zuela jada momentu horretan uste dute.

«Gehiegizkoa eman dezakeen arren, nik egiten dudan balorazioa oso baikorra da. Prestazioen sistema ona da, kalitate handikoa eta Europako lurralde garatuenekin konparatu daitekeena, nahiz eta gure errenta askoz ere baxuagoa izan» (E 1. Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Orokorrean hitz egin dezakegu, baina bai hemendik zein beste aldetik, elkartegintzaren mundutik alegia, nik uste dut balorazio baikorra egin dezakegula» (E 3. Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Oinarrizko Errentak lortu izan du egoera gogorrenak baretzen. Era berean, nolabaiteko funtzio pedagogikoa izan du, gaur egun argi baitugu inongo baliabideak ez dituen pertsona bati lagundu behar zaiola eta ezin dela egon baliabiderik gabeko pertsonarik. Hori urrats handia da» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Nik batzuetan pentsatzen dut, eta noizbait Imanol Zubero-ri entzun izan diot, gizarte batzuetan instituzioek egiten dituzten planteamenduen atzetik doazela...» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Aipatu bezala, nahiz eta arduradun politiko gehienentzat gaur egun gizarte-bazterkeriari aurre egiteko erabiltzen diren politika publikoak nahiko eragingarriak izan, badaude ere azpimarratu beharreko gabeziak, gehien bat gizarte-bazterkeria edo zaurgarritasunaren inguruan era zabal batean hitz egiten bada. Egindako elkarrizketak kontutan harturik, bi diskurtso mota edo bi arazo nagusi antzematen dira: lehenengoa politika zehatz hauek dituzten gabeziak eta bigarrena gizarte egiturak berak arlo ekonomiko, laboral edo kulturean adierazten dituenak. Azken hauek egiturazkoak izango lirateke eta beraz instituzio hauen ekimena eta funtzioak gainditu egingo lituzkete.

3.1. Gizarte-bazterkeriaren aurkako politiken diagnostikoa eta hobekuntzarako proposamenak

Aipatzen den lehenengo aspektu azpimarragarria oinarrizko gizarte zerbitzuen saturazioa edo gehiegizko lana da. Honen ondorioz askotan gizarte langileek gizarte langintza egin baino lan administratiboetara mugatzen dituzte beren eginkizunak. Oinarrizko Errentaren kasuan oso nabarmena da errealtate hau elkarrizketatuen arabera.

«Oinarrizko gizarte zerbitzu batzuk saturatuta daude, biltzeko eguna oso berandu izaten da eta askotan diru laguntza bat behar duten pertsonak oso berandu jasotzen du eta hori niri ez zait gustatzen eta ez zait gustatzen ere batzuk eta besteak paper gehiegi eskatzen hasten garenean. Gizarte langileek aipatzen dutenaren arabera lan administratiboegia egiten dute, balio erantsi gutxiko lana. Horrela denbora asko ematen dute paper ezberdinak egiten eta gutxi gizarteratze-hitzarmena lantzen. Askotan arazoan ebazpena denbora luzekoa izaten da. Horregatik, nik uste dut arlo horretan hobekuntzak eman daitezkeela, oinarrizko gizarte zerbitzuetan zein espezializatueta» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Gizarteratze Sailburuak aurreko paragrafoan aipaturikoari ñabardura bat gehitzen dio. Bere ustez askotan gizarte langileek nahiago dute lan administratiboa egitea ahalegin gutxiago eskatzen duelako eta errazago delako. Idei hau defendatzeko, Sailburuak jada gizarte lana eta lan administratiboa bereizteko udaletxeentzako diru laguntzak daudela aipatzen du, oso gutxi izanik laguntza hau eskatu duten udaletxeek.

«Guk administratiboak zein gizarte langileak kontratatzeo aukera ematen diegu gizarteratze prozesuak hobetu ahal izateko. Beraz nahi duenak aukera badu eta Eusko Jaurlaritzak baliabideak eskeintzen dizkie udaletxei hori egiteko» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Bata edo bestea izan, nahiko nabaria da oinarrizko gizarte zerbitzuek hobekuntzaren bat edo beste behar dutela, gehien bat Oinarrizko Errenta edota Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen kudeaketan. Maila honetan kokatzen dira, hain zuzen ere, administratiboak kontratatzeo dauden diru laguntzak, jada aipatu egin direnak, edota gizarte diagnostikoa egiteko aplikazioa. Azken honen helburua gizarteratze prozesuen akonpainamendua azkartzea eta hobetzea da, gehien bat administrazioa eta Oinarrizko Errenta jasotzen duen pertsonaren artean sinatzen den Gizarteratze-Hitzarmenean⁽³⁾. Dena den, kasu honetan ere gizarte langile batzuk betiko lan administratiboa nahiko dutelaren susmoa antzematen dute arduradun politikoei.

«Gehiago esango nizuke nik, gaur egun aplikazioarekin gizarteratze langintza egokia egin daiteke. Nire ustez lehenengo aldiz

(3) Neurri honetan sakontzeko: DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL (2006): *Diagnóstico e Intervención Social. Herramienta Informática para el Trabajo Social*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

gizarte zientzietan aplikazio praktiko bat eraiki egin da. Eta harri-tuta nago, denek ondo ikusten dute. Jada ehun udaletxe baino gehiagotan martxan jarri dute eta erabiltzen dute. Baina ez uste gogo bizi handiegirik sortu duenik, izan ere errazago da gauza monotonoak egitea... (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Hor dago gizarte diagnostikoa ezartzeko aplikazioaren au-
kera» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Lan administratiboa murrizteko helburuarekin ere ulertu daiteke Gizarte-Larrialdietarako Laguntzetan azken hilabete hauetan gauzatzen eta gauzatuko den erreforma —2010. urteko urtarrilean martxan jarri dena—. Diru-laguntza hauen %80 etxebizitzaren gastuei aurre egiteko erabiltzen da gaur egun, baina erreformaren bidez etxebizitzara zuzentzen den diru-kopurua Oinarrizko Errentaren osagarria izatera pasako da, bigarren honen ezaugarriekin: eskubide subjektiboa eta beraz aurrekontu-mugapenik gabe. Era berean, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak mantenduko dira —aurrekontu bera— eta nahia jatorrizko helburua berriz ezartzea izango da. Izan ere, eta bere izenak erakusten duen bezala, hasiera batean larrialdiei aurre egiteko jaio ziren, eta ez egiturazko arazoei aurre egiteko, azkenean gertatu den bezala.

«Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak bereiztu, etxebizitzaren zatia dena, uste dut %80 suposatzen duela, zatirik handiena eta zati hau eskubide subjektiboa izatea ondo iruditzen zait, horrela ez bait da urteko aurrekontuaren menpe egongo. Honen bidez kudeaketa ere arinduko da eta baita oinarrizko gizarte zerbitzuen karga ere. Erreforma hau gauzatzen bada, gizarte langileek egoera hobegotan lan egiteko aukera izango dute, eta udaletxe batzuetan dauden ilarak edo itxarote zerrendak murriztu ahal izango dira» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Etxebizitzarako osagarria eskubide subjektibotzat joko da. Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak mantenduko dira, baina gizarte-larrialdiei aurre egiteko, benetan arlo honi aurre egiteko. Hala nola, epe jakin bateko egoerei aurre egiteko eta egoera hauek pairatzen dituzten pertsonen laguntzeko» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Elkarrizketetan agertu den beste gai korapilotsu bat gizarteratzearena da. Eztabaidarik nabarmenena gizarteratzea eskubide edo betebeharrak bezala definitzerako momentuan agertzen da, askotan politikariek ere argi ez dutelarik izaten zein izan behar den arlo honetan administrazioa eta prestazio ekonomikoaren onuradunaren arteko harreman mota. Gai eztabaida-

tsua da (Bouchoux, 2004, L'Horty, 2006) eta hau emandako erantzunetan ikusten da, gehienetan argudio irmorik eskeintzen ez bait dute. Gizarteratze eta Diru-Sarrerak bermatzeko Legean ematen du gizarteratze-hitzarmenean beharpen handiagoa ezarriko zaiola prestazioaren onuradunari. Baina era berean, erreformaren arduradun instituzional bera ere saiatzen da argi uzten honek ez duela esan nahi onuradunen bat programatik baztertua izango denik edota workfare anglosaxoiaren eragina (Moreno, 2008b) kontutan hartu denik. Oraindik legea garatzeke dagoenez, ikusi beharko da hurrengo hilabetetan zein den hartzen duen norabidea eta gizarteratzearen zentzua benetan aldatzen den edo ez. Aldaketei dagokienez ere, ezin da ahaztu Frantziako Revenu Minimum d'Insertión —RMI— aldaketa nabaria jasan duela azken urte hauetan (Euzébi, 2008) eta beti euskal eredia honetan oinarritu dela erreformak egiteko. Beraz ikusi beharko da Revenu de Solidarité Active —RSA— berri delako honen eragina EAEn zein izango den.

«Nik printzipio batean eskubide ezberdin bezala ikusten ditut (gizarteratze eskubidea eta prestazio ekonomikoa jasotzearena), nire ustez gauza bat da bizi ahal izateko errenta bat jasotzea eta bestetik gizarteratzeko eskubidea. Nire ustez, printzipio orokorra bi hauek ezberdintzearena izan behar da, baina teknikoki beharrezkoa ikusten bada, zenbait kasuetan batzeko aukera aurreikusko nuke nik. Honen bidez, adibidez, gizarte politiketaz bizitzen saiatzen den jendeari aurre egiteko» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Gizarteak, baliabideak, prestazioak eta programak eskaintzen dizkizu eta herritarrak pobrezia eta bazterkeria egoerak gaingintzeko eskubidea eta betebeharra du. Lege berriarekin hau aldatzen da, elkarrekotasuna eskatuko da, betebeharra izango da. Alde batetik, pertsonak dituen baliabide pertsonal guztiak eskaini beharko ditu, Oinarrizko Errentatik ateratzeko lehen bai lehen. Zigorak aurreikusten al dira? Bai, printzipioz murrizketak, murrizketa eta egoeraren arabera baita programatik baztertzea. Gerta al daiteke batzuk sistematik at gelditzea? Niri egoera horretara ailegatzea gehiegi iruditzen zait» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Gizarteratzearekin loturik ere, lanaren bidezko gizarteratzeak erakusten dituen mugak aipatzen dira behin baino gehiagotan. Honen harira, Oinarrizko Errentaren onuradunen artean alde batetik lan-merkaturatzeko arazo ikaragarriak eta muturreko gizarte-bazterkeria pairatzen dituzten taldeak eta bestetik gizarteratze beharra ez duten taldeak —jada integratuta daudelako eta bere gabeziak ez direlako kokatzen gizarte-bazterkerian— daude.

«Argi dago kronifikazio handiko egoeretan enplegua ezin izango dela gizarteratzeko tresnarik eraginkorrena izan. Kasu hauetan beste bide batzuk bilatu beharko dira, oinarrizko beharrietara zuzentzen direnak eta egoera hau bizitza osorako izan daitekela kontutan harturik» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Jubilatua dagoen pertsona bat ez du gizarteratze-hitzarmenik behar, bere jubilazioa osatzea baizik. Eta jada lanean dagoen pertsona batek ere ez du behar, lanaren bidez lortzen duen errenta osatzea da kasu honetan Oinarrizko Errentak duen helburua. Hori argi dago» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Gaur egungo politikak dituzten gabeziekin bukatzeko, eta lan administratiboaren zama eta gizarteratzeak islatzen dituen arazoak aipatu ondoren, hirugarrenik askotan azertu edo aipatu gabe gelditzen den kolektibo baten egoera azalduko da hurrengo lerroetan, muturreko gizarte-bazterkerian kokatzen diren taldeak eta askotan etxerik gabeko pertsona bezala ere izendatzen direnak, hain zuzen ere. Zentzu honetan, Oinarrizko Errentak lan eragingarria egiten duela gizarte-bazterkeria edo zaurgarritasunean kokatzen diren pertsonekin ematen du, baina ez da hain era egokian heltzen gizartearen behe-beheko partean daudenetara. Ikuspegi honetatik, Gizarte Gaietarako Sailburuak behin baino gehiagotan azpimarratzen du arreta berezia eskaini behar zaiola kolektibo honi eta lehen baino beranduago neurriak hartu behar direla pertsona hauen egoera hobetzeko.

«Muturreko gizarte-bazterkeriaren gaiak kezkatzen nau, kalean lotan dauden pertsonen laguntzeko hitzarmen politiko-administratiborik ez dago oraindik. Helburua kalean inork lorik ez egitea izan behar da eta horretarako baliabideak ezarri behar dira. XIX. mendeko egoerak dira eta ezin dira onartu. Orain arte politika zentzudunak egin dira, baina muturreko gizarte-bazterkeria kanpoan gelditzen ari zaigu. Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen gehiengoaren barruan asko bizitza nahiko arrunta eramaten dute. Baina beste kolektibo zehatz honi dagokionez, indarrak fokalizatu behar dira, ahalegin berezia eginez (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

3.2. Gizarte-bazterkeriari aurre egitea eragozten duten egiturazko faktoreak

Elkarrizketatu guztien artean nabaria da gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politikak ez dutela egoera honekin bukatzeko eta honek sortarazten dituen ondorioak baretzeko baino ez direla erabilgarriak. Gizarte-bazterke-

ria egiturazko arazoa izanik, arduradun politikoen ustez neurriak ere egiturazkoak eta konplexuak izan behar dira, ereduaren muinean eragin behar dutenak alegia.

«Integrazioaren gaia ez dago bakarrik gure prozesu edota gure gizarteratze-politiken esku» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Esan beharreko lehengo gauza gizarte politikak tresna bat direla da, baina ez tresna bakarra» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Aurreko egunean irakurri nuen behingoz txosten batean gizarte zerbitzuen helburua ez dela gizarte-bazterkeriarekin bukatzea. Izan ere, gizarte-bazterkeria guztiari gizarte zerbitzuen bidez aurre egitea ezinezkoa da» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Zentzu honetan, behin eta berriz, gizarte-bazterkerian eragina duten bi elementu agertzen dira, hauengan eragin beharko litzatekeelarik egoerari aurre egin ahal izateko. Alde batetik, lanaren behin-behinekotasuna aipatzen da; eta bestetik, etxebizitzaren egoera. Arduradun politikoen zentzuko, bi elementu hauek bazterkerian eragiten dute eta gaur egun jazozen den errealitatea ulertzeko ezinbestekoak dira.

«Politika nagusienek eragina sortarazi behar dute bazterkeria sortzen duten faktore guztietan, adibidez, etxebizitza arloan, etxebizitza gehiago egiten badira eta prezio egokian honek bazterkerian eragina izango du...» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Enplegu-politikak, etxebizitza-politikak, etabar garatu beharko lirateke. Zentzu hertsian ez dira soilik gizarte-politikak. Politika ezberdinak koordinatu beharko lirateke eta gizarteratzea sustatzen duten politikak bultzatu. Zentzu honetan, zeharkakotasunak inoiz baino garrantzi handiago hartzen du» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Gaur egungo arazoak egiturazkoak diren beste batzuen menpe daude, enpleguaren kalitatea edota etxebizitza bezalako arazoak. Eta bi horiei aurre egin arte zaila izango da gizarteratze egokia lortzea. Zaila ez, ezinezkoa...» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Ikusten denez, bi elementu hauek integratzaile zutabe nagusienak dira. Horrela adierazten dute elkarrizketatuek ere gizarte-integratzailearen inguruko definizioa plazaratzen dutenean.

«Nik beti esaten dut pertsona bat integratuta egoteko bi oinarrizko elementu daudela. Eta hauek etxebizitza eta enplegua dira, sozialki aztertuta ere hauek norbanakoa taldearen parte izatea ahalbidetzen dute» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Integratzailearen ardatza hori da, bazterkerian eragiten duten faktoreei aurre egin behar zaio, baina ez soilik ekonomiko-ki. Formakuntza edota enpleguari ere arreta jarri behar zaio» (E 1: Gizarteratzea. Foru Aldundia).

Eta integratzailearen inguruko definizioari lotuta, eta txanponaren beste aldea izanik, gizarte-bazterkeriaren ingurukoa ere eskatu da itaunketan. Emandako hiru definizioek kontzeptuaren izaera konplexua eta anitza azpimarratzen dute, bazterkeriak faktore asko dituen errealitatetzat jotzen delarik, hauen artean gabezi ekonomikoak zehazten dira, baina honetaz gain beste batzuk ere. Era beran gizarte-bazterkeria egiturazko arazotzat jotzen da eta ez norbanakoarena, horrela zokoratuta gelditzen delarik lurralde anglosaxoietan hedaturik dagoen dependentziaren kulturaren edo *underclass* (Auletta, 1982; Mead, 1997) bezalako teoriak. Hau guztia aipatuta nabaria da gure erkidegoko arduradun politikoen artean gizarte-bazterkeriaren inguruko gerturapena egiten dela, alde batera utziz aurreko hamarkaden pobrezia inguruko teoria eta ikuspegiak (Tezanos, 1999).

«Gizarte bazterkeria oinarrizko beharrianak asetzeko edota hauei aurre egiteko pertsona batzuk dituzten gabeziak izaten dira, honetan askotan pertsonen arteko loturak eta harremanak desagertzen direlarik. Egoera honetan daudenak eskubide ezberdinetaz gozatzeko aukera gutxiago dituzte, gehien bat gizarte-eskubideei dagokienez. Normalean pobrezia eta bazterkeria maila berean jartzen dira, baina nire ustez pobrezia ondorio bat da eta ez bazterkeriaren ezaugarri» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Nire ustez gizarte-bazterkeria egiturazko faktoreen ondorioz ematen den egoera da. Egoerak eta ez hain beste pertsonen ezaugarriak. Horrela, beharrian pertsonalei buruz hitz egin behar dugu, beharrian sozialei buruz. Zentzu honetan, gaur egun administrazioek martxan jarritako zenbait neurri ez diote beharrian hauei erantzun egokirik ematen. Horretaz

gain, gizarte-bazterkeria hezkuntza, ekonomia, enplegua edota etxebizitza politikei lotuta dago ere...» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Gure ustez gizarte-bazterkeriak izaera anitza du. Pobrezia egoera da, baina baliabideen eskasia ere, eta baliabide hauek ez dira soilik ekonomikoak, pertsonalak, sozialak, etabar ere badira. Beraz, ez da bakarrik baliabide ekonomikoen gabezia baizik eta baliabide pertsonalena eta baita prestazio ekonomi-koetara eta gizarte babesera sartzeko aukeren gabezia. Eta honetaz gain formakuntza edota enplegurako gabezia ere bada» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Aipatutako definizio hauetan ikusi daitekeen moduan, gizarte-bazterkeriaren mugak zehazten dituzten egiturazko faktore nagusienak lan-merkatua edota etxebizitza izaten dira. Hau oso era nabarian ikusten da gizarte-bazterkeriari aurre egiteko kudeatzen diren euskal politika publikoetan. Izan ere, bi arlo hauetan zentratzen dira nagusiki. Alde batetik, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzen gehiengoa etxebizitzaren arazoari aurre egiteko zuzentzen da. Esan bezala, azkenean arazo horri aurre ez egiteko jaio zen neurri hau. Pentsatu daitekeenez, errealitate hau oztopo eta muga bat da politika hauen garapen oso eta egokia gauzatu ahal izateko. Baina hau ez da oztopo bakarra, lan-merkatuari erreparatuta, Gutxieneko Soldataren kopurua nahiko baxua denez, diru-sarrerak bermatzeko erabiltzen diren neurri ezberdinek ere muga asko izaten dituzte halabeharrez.

Gaur egun, Gutxieneko Soldata 624 eurotakoa da —2009. urterako— eta nahiz eta azken urte hauetan zerbait igo —2006. urtean 570 eurotakoa zen—, oraindik Europako baxuenen artean kokatzen da. Europako Bata-suneko lehen sartu ziren 15 lurraldeak hartuta, 2006. urtean soilik Portugal kokatzen zen kopuru horren azpitik. Grezia, adibidez, Estatu espainiarra baino aldagai ekonomiko txarragoekin, 668 euroko gutxieneko soldata zuen. Era berean, oso urruti kokatzen ziren Frantzia (1.228 euro), Belgika (1.234), Holanda (1.273), Erresuma Batua (1.269) edota Irlanda (1.293) bezalako lurraldeak (*El País*, 2006/11/11). Esan bezala, Gutxieneko Soldata hain baxua izanik, Oinarrizko Errentak nolabaiteko *beirazko sabai* baten aurrean topatzen da. Aukera bakarrak, honen azpitik eta beraz nahiko errenta txikia bermatzen duen prestazioa eskaintzea da edota Gutxieneko Soldata gaingitzea izango lirateke, azken aukera honek lan-merkatuari begira sortu ditzazkeen ondorio ezkorrek kontutan hartu behar direlarik. Hau beti ere pertsona batentzako Oinarrizko Errentari buruzko datuak kontutan harturik. Izan ere, gaur egun Oinarrizko Errenta jasotzen duten eta seme-alabak dituzten familientzat kopurua Gutxieneko Soldataren goitik kokatzen bait da. Errealitate kontraesankor eta zail hau, behin baino

gehiagotan aipatzen da elkarrizketa ezberdinetan, Gutxieneko Soldata gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politikentzat muga bat dela eta honen kopurua batzuetan pobrezi muga ez duela gainditzen azpimarratuz.

«Arazoa gaur egun Gutxieneko Soldatak ez dituela oinarrizko beharrianak bermatzen da. Gutxieneko Soldatara lotuta gaudenez berak ezartzen duen muga ez gainditzera behartuta gaude. Gutxieneko Soldatak ez badu gutxieneko ongizatea bermatzen, argi dago honi lotutakoak ere ez dutela bermatuko. Hortaz, harrapatuta gaude, baina zein izan daiteke beste irizpidea?» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Nire ustez errentei buruz hitz egiten dugunean oinarrizkoa den gauza bat dago eta hau Gutxieneko Soldata erreferentzia izatearena da. Gaur egun Gutxieneko Soldata mileuristen erdian egotera eramaten zaitu. Nik uste dut Gutxieneko Soldataren igoera planteatu behar dela, onartezina bait da horrelako kopurua izatea Europa mailan» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Arazo honi aurre egiteko eta Gutxieneko Soldatak Oinarrizko Errentarentzako ezartzen duen *kortsea* gainditzeko, Enplegurako Pizgarriak sortu ziren 2001. urtean, prestazioen onuradunen artean Oinarrizko Errentak lan-merkaturatzeko sortu ditzazkeen ondorio ezkorrei aurre egiteko. Pizgarri hauen bidez, Oinarrizko Errenta jaso ahal izateko enpleguaren bidez lortzen diren diru-sarreraren zati bat ez da kontutan hartzen, honen bidez *pobreziaren tranpari* ere aurre egiten zaiolarik. Neurri honen inguruan denak ez dira iritzi berekoak eta Gizarteratze Sailburuaren hitzetan, batzuentzat pizgarri hauen bidez enpresariei laguntzen zaie, eurek ordaindu beharko luketen soldataren zati bat pizgarri hauen bidez ematen bait da. Eztabaida honetan sakontzeko azterketa sendoak beharko lirateke. Dena den, gaur egun nahiko nabaria da Enplegurako Pizgarri hauen bidez hainbat familiariek diru-sarrera osagarria lortu dutela eta beren egoera, gutxi bada ere, zertxobait hobetu dela. Era berean, pizgarri hauen bidez lan-merkaturatzea erraztu eta ahalbidetu da.

«Altzairuzko zirkulu hori apurtzen saiatzen ari gara. Eta nola apurtzen dugu? Enplegurako pizgarrien bidez. Pizgarri hauek Gutxieneko Soldataren gaintik gelditzen dira, nik uste dut bide egokia dela. Horrela, hauen inguruko balorazio ona egiten dugu, zuk esan bezala, hauen bidez pobreziaren muga gainditzen dugu. Baina bestetik, batzuk esaten digute honen bidez prekariora den eredu laborala sendotzen ari garela...» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Paradoxa honi aurre egiteko, Enplegurako Pizgarriekin batera, Foru Aldundi ezberdinek, era ez koordinatuan orain arte, diru-kopuru osagarri bat ematen diote onuradunei eta honen bidez askotan ere Gutxieneko Soldatetik gora kokatzen da Oinarrizko Errentaren bidez jasotzen den prestazio ekonomikoa. Honetaz gain, Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak edota beste motatako diru-laguntzak daudenez ere, sarritan Oinarrizko Errenta jasotzen duen pertsona batek enpleguaren bidezko errentetatik jaso dezakeena baino gehiago lortu dezake. Errealitate hau guztiz kontraesankorra eta *pobreziaren tranpa* bultzatu dezake, hau da, gizarte prestazio bat jasotzea enplegu bat izatea baino erakargarriagoa izatea. Hurrengo hitzetan adierazten den bezala:

«Egia da Oinarrizko Errenta eta seme-alaben bat edo bi edo gehiago dituzten pertsonak enplegu bat izango balute baino diru gehiago lortu dezaketela prestazioaren bidez. Oinarrizko Errentari gizarte-Larrialdietarako Laguntzak, seme-alaba izateagatik osagarriak edota Foru Aldundien osagarriak ere gehitzu behar zaizkio. Honen inguruko gogoeta lasaia egin behar dela uste dut. Babes-sistementzako zein izan behar den erreferentzia eztabaidatu beharko genuke, lan-merkatuaren inguruan eztabaidatu beharko genuke ere... (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Hau guztia ikusi eta gero arduradun politikoek gaur egungo gizarte eredia zein gizarte politiken inguruko argazki egokia eta gaurkotua eskeintzen dutela ematen du. Era honetan, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politiken deskribapen eta hauen gabezien inguruko zehaztapen zorriz ematen dituzte. Ez da hain argia, ordea, euren iritzia etorkizunari buruzko galderak egiten zaizkionean, hobekuntzak ze arlotan eta zeintzuk izan beharko lirатеkeen edota beste lurraldeetako esperientzia interesgarrii buruz galdetzen zaienean. Zentzu honetan, iritzi orokorrak eta zehaztapen handiegirik gabekoak dira nagusitzen direnak.

«Lehen aipatzen nizun gogoeta, instituzioen arteko egitura-tze prozesuan sakondu beharko genuke, guztien arteko eremu komunak egon behar dira. Nik horretan sakonduko nuke...» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Guk beti Frantziara begiratu dugu, baina gertatu diren azken istiluak ikusirik eredu horrek ez dizkigu berme gehiegirik eskaintzen. Esperientzia interesgarriak azkenean guk eraikitzen ari ditugu. Gure programa den Auzolan, adibidez, Frantzian ezartzen ari da momentu hauetan. Dena den, esperientzietan

ez dago hainbeste, nazioarteko bileretara joaten zarenean proposamen gehienak teorikoak izaten dira, unibertsitatean landutakoak, ez dute aplikazio praktikorik izan eta horrek beldur piska bat ematen dizu» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Nik beste esperientziei buruz ez dakit asko. Horixe bai dela galdera potoloa. Nik uste dut enpleguaren arloan zeozer gehiago egin daitekela, adibidez gizarte klausulak, babesturiko merkatuak, gizarteratze-enpresak...» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Eta erreformen edota alternatiben inguruko iritziekin jarraitzeko, hurrengo eta azkenekoa den atalean Herritartasun Oinarrizko Errenta kontzeptuan sakonduko da. Horretarako, ideien honen inguruan arduradun politikoez duten iritzia ezagutuko da eta era berean gaur egun gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politiken inguruan Herritartasun Oinarrizko Errentak izan dezakeen eragina ere landuko da.

4. Herritartasun oinarrizko errenta *itsasargia* izan al daiteke gizarte-bazterkeriaren aurkako politikentzako?

Azpmarratu behar den lehenengo gauza Herritartasun Oinarrizko Errentaren (4) proposamena jada agintari politikoen artean guztiz ezezaguna ez dela da. Zentzu honetan, eta nolabaiteko ezezagutza suposatuz, galdetegiaren lehenengo galdera proposamenaren ezaugarrien ingurukoa zen. Dena den, galdera hau ez da planteatu behar izan eta hori elementu adierazgarria bada ere. Horrela, elkarriketatuek, sakontasun gutxiago edo gehiagorekin, Herritartasun Oinarrizko Errenta proposamena ezaugarritzen zuten. Honek piskanaka-piskanaka bada ere ideien hau gero eta gehiago ezaugarritzen dela islatzen du ere, eta noski, klase politikoa ez da bilakaera honetan salbuespen. Are gehiago, batzutan politikariek iritzia publikoa baino hobeto ezaugarritzen du Herritartasun Oinarrizko Errentak azaleratzen dituen planteamenduak. Ezaugarritza honetan ezin dugu ahaztu aurreko legegaldian ponentzia legebiltzar-kide bat onartu egin zela gai honen inguruan Eusko Legebiltzarrean.

«Nik uste dut proposamena nahiko ezezaguna dela arlo politikoan, kontutan hartzen den proposamena da eta ongiatorria da.

(4) Artikulo honetan Oinarrizko Errenta Sarea Elkarrekin eginiko Herritartasun Oinarrizko Errentaren definizioa jarraitzen da: «Oinarrizko Errenta, Estatuak eskubide osoko orori edo gizarte horretan bizi denari ematen dion diru-sarrerara da, herritartasun eskubide bezala, honek ez badu ordainduriko lanik egin nahi kontutan hartu gabe edota aberats ala txiro den. Beste erara esanda, ez da kontutan hartuko beste diru-iturririk dituen ezta norekin bizi den» (Oinarrizko Errenta Sarea, 2001).

Eta Legebiltzarrean gai honen inguruko ponentzia bat egotea berri ona dela uste dut» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Legebiltzarrean egiten ari dena, ez dakit ponentzia edota lan-talde bat den, baina gauzak ondo egiten ari direla uste dut» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Politikariek ideia ezagutzeak ez du esan nahi horren aldekoak direnik edota bakarrik laudorioak eskeintzen diotenik. Are gehiago, orokorrean Herritartasun Oinarrizko Errentaren inguruan zalantzak eta nolabaiteko mesfidantza antzematen dela aipatu daiteke. Ikuspegi honetan kokatzen dira Gizarteratze Sailburuordea eta Gizarte Ekintzako Ahaldua. Tarteko lekuan eta Herritartasun Oinarrizko Errentatik gertuago Gizarte Gaietarako Sailburuordea kokatuko litzateke.

«¿Bideragarria edota egokia al da proposamena? Ba... nire ustez ez. Hemen lan egiten dugunok errenta unibertsalaren alde gaude. Baina gure ustez enpleguaren bidezko errentak ere kontutan hartu behar dira» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Zalantzeekin ikusten dut, zalantzeekin» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Proposamen probokatzailera iruditzen zait, ispiluairean aurrean begiratzera behartzen gaitu. Nire ustez arlo politikoan ongietorria den proposamena da eta gutxienez gaur egun gauzatzen ari diren politika publikoen azterketa kritikoa egiteko baliogarria da. Printzipioen atalean kokatuta, Herritartasun Oinarrizko Errentak planteatzen dituen ideiekin bat egiten dut» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Honen harira, Herritartasun Oinarrizko Errentaren inguruan agertzen diren kritika edo zalantza ohikoenak ere agertzen dira arduradun politikoen iritzietan (Moreno, 2003: 279-288). Hauen artean, errenta eta enpleguaren arteko disoziazioa, enplegurik gabe errenta jasotzea, inflazioaren hazkundera, horrelako neurria testuinguru orokorrean gauzatu behar izatea, lurralde aberatsentzat soilik izatea, proposamenaren izaera unibertsala edota Ongizate Estatua suntsitzeko tresna bezala erabili ahal izatea dira (Friedman, 1966), besteak beste, planteatzen diren kritika nagusienak.

«Nire ustez Oinarrizko Errenta unibertsal batek herritar guztien diru-sarreraren igoera ekarriko luke, baina pobreak direnak pobre izaten jarraituko lukete. Era berean, planteamendu hau

ezin da egin erkidego autonomo batean, ezta Estatu mailan soilik ere. Hirugarrenik, Iparraldeko planteamendua iruditzen zait ez Hegoaldeko lurraldeena eta horrek zalantzak pizten dizkit. Erkidego honen kultura kontutan harturik ez dut uste ondo ikusiko denik denek errenta bat bermaturik izatea enplegu bat izan ala ez, baina azken hau anekdotikoagoa da niretzat» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Niri ez zait egokia iruditzen goi klasekoek ere errenta jasotzearena. Beste beldur bat da Herritartasun Oinarrizko Errenta nolabait ere zerbitzuentzako txeke bat bezala erabiltzea, nire ustez gizarte zerbitzuak publikoak izan behar dira, hirugarren sektorearekin konzertatuta nahi baduzu, baina publikoak. Ezin dena da esan nik ordainduko dut eta gizarte zerbitzuak merkantuan erosiko ditut» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Hauxe da politikari hauen iritzia lehenengo begirada batean behintzat. Hala ere, honek ez du esan nahi Herritartasun Oinarrizko Errenta agenda politikotik baztertu egiten dutenik edo erabateko errefusatzeari ematen denik. Horrela, elkarrizketan zehar, eta proposamenaren ideia nagusienetan sakondu ahala, hasierako ikuspegi ezkorra baretu egiten da eta elkarrizketetan agertzen diren ikuspegi ezberdinetan elementu komunak antzematen direla eta zenbaitetan proposamenetik nahiko gertu egon daitezkeela ere esan daiteke. Are gehiago, proposamena ez da gaizki ikusten, edo gutxienez honen inguruko eztabatida, beti ere malgutasuna, moderazioa, partidismo eza edota bideragarritasunaren inguruko elementuak kontutan hartzen badira.

«Nik uste dut lan-eremu bat badagoela. Adibidez, Pinilla eta Sanzoren saiakera. Gaur egungo politikak eta Herritartasun Oinarrizko Errenta batzearen ideia interesgarria iruditzen zait. Nik uste dut bide hori landu beharko genukela. Daukagunetik hasita, horren bilakaeraren bidez eta tresna fiskalen bidez unibertsalizaziora gerturatuz...» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Fase ezberdinak antzematen dira. Ematen du Herritartasun Oinarrizko Errentak muga batzuk gainditu dituela eta piskanaka zabaltzen ari dela unibertsitatetik gizarte mugimendu eta arlo politikora. Eremu bakoitzak bere hausnarketa egin beharko du, proposamena irentsi behar du. Liseriketaren prozesuaren arabera, proposamenaren eztabaida mantsoago edo azkarrago joango da...» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

«Ez zait egokia iruditzen honen inguruan hitz egin behar baduzu eztabaida maximalistak aurkeztea, oposizioan gaudela aprobetxaturik. Arlo honetan adostasuna eman behar dela iruditzen zait eta seriotasunarekin lan egin beharko zen eta zentzu honetan, eta jada aipatu dudanez, Legebiltzarrean egiten ari dena egokia iruditzen zait» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

Eta guztien artean adostasuna proposamenaren bideragarritasun tekniko zein ekonomikoaren inguruko zalantzetan ematen da. Honen harira, proiektu esperimentalak martxan jartzea eskatzen da, honen bidez zehaztasun gehiagorekin jakin ahal izateko zeintzuk izango liratekeen Herritar-tasun Oinarrizko Errentak testuinguru ekonomiko eta sozial dinamiko batean izango litzuzkeen ondorioak.

«Mota honetako proposamenak zonalde edo udaletxe batean egikaritu beharko lirateke. Leku txikietan gauzak egitea gero handietan zer nolako eragina izango lukeen jakiteko. Izan ere, guztiz erakargarriak diruditen proposamenek batzutan ondorio oso ezkorrak izaten dituzte» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Jada artikuloan aipatu den bezala, elkarrizketa gehienetan arduradun politikoek zuzenean nahiz zeharka oraingo ereduak gizarte bazterkeriari aurre egiteko gabezi edo zulo batzuk dituela adierazten dute. Hauetako hutsune bat izango litzateke, esaterako, gaur egun Oinarrizko Errenta zenbaitetan jada enplegu bat dutenei ematen zaiela, hauen oinarrizko beharrianak ez bait daude bermaturik enpleguaren bidezko errentaren bidez. Kolektibo honi *langile pobre* edo *working poors* izenarekin ere ezagutzen zaio (Peña-Casas eta Latta, 2004). Era berean, nahiko kontraesankorra da pentsio bat jasotzen duten hainbatek ere Oinarrizko Errenta eskatu behar izatea euren diru-sarrera osatzeko eta pobreziaren muga gainditzeko.

«Maila politikoan lortu beharko genuke pentsio kontributiboak jasotzen dituzten pertsonak Oinarrizko Errentatik at egotea, gaur egun dagoen Oinarrizko Errentarako osagarria ez jasotzea. Lortu behar dena da pentsiodun hauek Oinarrizko Errentaren kopurutik gora egotea eta diru hori beste prestazio batzuetara dedikatzea» (E 3: Gizarte Ekintza. Foru Aldundia).

«Oinarrizko Errentaren barruan lan-gizarteratzea ahal dutenak %50 inguru da. Eta %50 horretatik %20 baino gehiagok enpleguaren bidezko errentak jasotzen ditu, enplegu prekario

baten bidezko errentak dira horiek. Hor guk ezin dugu ezer egin... eta gauza berdina gertatzen da zenbait jubilazio errentekin» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Baieztapen honetan oinarriturik, zenbait kasuetan sistemaren ahuldeari edota krisiari buruz hitz egiten da, gehien bat ematen diren efektuak kontraesankorrak eta batzutan ilogikoak ere direlako. Honen harira, guztiz paradoxikoa da, izaera asistentziala eta subsidiarioa duen gutxieneko diru-sarreraren sistemak —Oinarrizko Errenta— Ongizate Estatuan herritarren integrazioa ahalbidetzen duten bi sistemetako pertsonen diru-sarrerak osatzea eta hauei laguntzea. Ongizate Estatuaren bi ardatz hauek, enplegua eta gizarte-eskubideak dira eta aurreko paragrafoetan esan bezala, gero eta langile pobre eta pentsiodun gehiago dira Oinarrizko Errenta eskatu behar dutenak, nahiz eta bi sistema hauen babesa izan.

«Guretzat onartezina da. Gizarte Segurantzza ez da gure eskumena, Estatuarena da eta eskubide unibertsala eta subjektiboa da pentsioen bidezko errentak. Baina bestetik esaten duzu, hain baxuak izanik zeozer egin behar da hor. Hortaz, izaera asistentziala duen prestazio baten bidez guk errenta hori osatzen dugu, baina argi dugu honen bidez gizarte-eskubideen balio-galtze bat ematen ari dela. Oinarrizko gizarte-eskubideak asistentzializatzen ari dira eta hori ez da batere ona Ongizate Estatuarentzat» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

«Gai korapilotsua da hori eta baita ere gakoetako bat. Momentu honetan ematen du gaur egungo ereduak ez duela gehiago ematen. Oinarrizko Errentak Gizarte Seguratasuneko pentsioak osatzen ari ditu eta horrek ahuldadea erakusten du. Nire ustez zeozer egin behar bada, egiturazko politiketan egin behar da eta ez politika asistentzialetan. Ezin dena onartu da erresiduala den neurri bat (Oinarrizko Errenta) orokorra den baten osagarri izatea» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Azken bi aipu hauek nahiko era nabarmenean islatzen dute zein den gaur egungo gabezien gako nagusienetarikoa. Momentu honetan, zenbait pertsonentzat ez enpleguak ezen gizarte prestazioak ez dira nahiko gizarte-bazterkeria edota zaurgarritasunari aurre egiteko. Testuinguru honetan, Herritartasun Oinarrizko Errenta bezalako proposamen batek zeresana izan dezake. Arduradun politikoen iritzietan, adibidez, neurri honen oinarrietan dauden hainbat iritzi edo postulatu aipatzen dira. Hauen artean, prestazioen unibertsalizazio handiagoa edota gizarte-bazterkerian daudentzako neurri bermatzaileetan sakontzea daude, besteak beste.

«Gehiago unibertsalizatu dezakegula? Ados nago, eztabaidarako eremua dago horretan. Horren inguruko saiakerak egin daitezkeela uste dut. Eta zentzu horretan, guk egindako saiakera interesgarria dela uste dut. Familiaren definizioa malgutu egin dugu, horren bidez unibertsalizazio gehiago lortuz, diru gehiago eskatzen du honek baina honen bidez jende gehiagok eskatu ahal izango du Oinarrizko Errenta» (E 1: Gizarteratzea. Eusko Jaurlaritza).

Are gehiago, elkarrizketatu batek Herritartasun Oinarrizko Errenta epe motz zein ertainean jarriko ez den neurria izanik, epe luzera begira zeresana izan dezakeela uste du, gutxienez etorkizuneko politika publikoengan eragina sortarazi. Honen inguruan, gaur egungo gizarte-prestazioen bila-kaera zein izango den aurreikustera ausartzen da, ematen diren prestazio hauek gizarte-zaugarritasunaren muga gairatzen ez dutela azpimarratzen delarik bere hitzetan.

«Hurrengo urteetan zer gertatuko den? Nire ustez, epe motzera ez da ezarriko baina etorkizunean itsasargia izan daiteke. Nolabait ere, etorkizunean politika ezberdinetan eragina izan dezake Herritartasun Oinarrizko Errenta eta nire ustez kolektibo jakinen zabalpenaren bidez emango da. Nire ustez neurri honek estaldura eskeini dezake gero eta talde gehiagori, adibidez, pentsioak jasotzen dituztenak, lan merkatuaren zonalde ilunetan kokatzen diren bekadun edota lan-baldintzak txarrak dituztenak. Pentsio kontributiboak, ez kontributiboak, bekak etabar gehitzen joaten bagara... Menpekotasuna duten pertsonen zainketaengatik ere akaso errenta bat jaso daiteke, seme-alabak zaintzeagatik edota exzedentzia bat hartzean ere. Azken finean, hainbat kolektibo gaur egun diru-laguntza ezberdinak jasotzen dituzte, denak gehitzen baditugu eta denboran zehar era azkar batean ikusten baditugu ikusi ahal izango dugu Herritartasun Oinarrizko Errentak zeresana baduela gaur egun» (E 2: Gizarte Gaiak. Eusko Jaurlaritza).

Ikusi daitekeen moduan ainu nahiko luzea da, dena den osorik aurkezten da oso era adierazgarrian azaltzen duelako zein izan daitekeen hurrengo urteetako dinamikak eta horietan Herritartasun Oinarrizko Errentak izan dezakeen eragina gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politikek erakusten dituzten gabezien aurrean. Zentzu honetan, nahiko nabaria da hainbat kolektibo eta euren artean ezberdinak eta anitzak direnak gutxienezko diru-sarrera bat bermatzearen beharra erakusten dutela gure gizarteetan. Era berean, Herritartasun Oinarrizko Errentak gai edo arazo be-

rriei erantzunak emateko aukerak ematen ditu, adibidez lan eta familia kontziliazio edota menpekotasunari dagokionez. Guzti hau aipatu ondoren, arduradun politikoek egiten dituzten gogoeta hauek oso interesgarriak dira eta politika hauen inguruko eztabaidarako hasiera-puntu interesgarria izan daitezke.

Eztabaida guzti hauetan Herritartasun Oinarrizko Errentak bide berriak irekitzen ditu baina era berean zuzenean erroturik agertzen da Ongizate Estatuaren oinarrizko ideei batekin. Bere burua dezentetzat duen edozein gizartek (Margalit, 1997) herritartasun duina bermatu behar du bere herritar guztientzat eta horretarako gutxieneko material edota ekonomikoa eskaintzea derrigorrezkoa da. Gaur egun eskeintzen diren prestazio eta politika ezberdinek, eta artikulo osoan ikusi den bezala, helburu honetara zuzentzen dira baina gabezi eta ahuldade narbarmenak ere erakusten dituzte, askotan arazo franko izaten dituztelarik gutxieneko diru-sarrera egoiak bermatzeko eta gizarte-bazterkeria zein zaurgarritasunari aurre egiteko. Pentsiodun pertsonen —gehien bat emakume alargunak— edota enplegu bat izateaz gain Oinarrizko Errenta jasotzen dutenen adibideak oso esanguratsuak dira.

Nabaria denez, Herritartasun Oinarrizko Errentaren ezagutza eta hedapena gaur egun oso mugatua da. Dena den azertu den errealitate honek aire berriak ekarri ditzazke eta epe motz zein ertainean urruti gelditzen bada, etorkizunera begira eragina izan dezakeen neurria izan daitekela pentsa daiteke. Eragina izan ala ez, argi dagoena da hurrengo urteetan hausnarketa sakonak egin beharko direla gizarte-bazterkeriari aurre egiteko politika publikoen inguruan, gutxienez Ongizate Estatuak zuzentzen dituen gizarte-politiken bidez herritarren gutxieneko duintasun bat bermatu nahi bada.

Bibliografia

- AGUILAR, Manuel; GAVIRIA, Mario; LAPARRA, Miguel. *La caña y el pez. Estudio sobre los Salarios Sociales en las Comunidades Autónomas*, Foessa Fundazioa, Madril, 1995.
- ARARTEKO. *La situación de los servicios sociales de base en la CAPV*, Ararteko, Gasteiz, 1999.
- ARRIBA, Ana. «Procesos de implantación de políticas de rentas mínimas de inserción en España», *Politika Konparatuen Unitatea* (CSIC), Lan Txostena 99-09, en www.iesam.csic.es/doctrab1/dt-99-09.pdf, 1999.
- AULETTA, Ken. *The Underclass*, Random House, New York, 1982.
- BOUCHOUX, Jacques. «Los Contratos de Inserción en el RMI francés», en *Encuentro Renta Básica y procesos de inserción*, Abenduak 1-2, Gasteiz, 2004.

- DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL. *Diagnóstico e Intervención Social. Herramienta Informática para el Trabajo Social*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2006.
- EUZÉBY, Chantal. «Vers un revenu de solidarité active au rabais?» en *Futuribles*, 345. zenbakia, 2008, 61-68 orr.
- FRIEDMAN, Milton. *Capitalismo y libertad*, Rialp, Madril, 1966.
- GAVIRA, Lina y GONZÁLEZ, Francisco. «Propuestas integradas de políticas activas de bienestar y empleo: sumario», en www.eurofound.eu.int/publications/files/EF0260ES.pdf, 2002.
- LAPARRA, Miguel. «La travesía del desierto de las rentas mínimas en España», en *Documentación Social*, 135. zenbakia, Urriak-Abenduak, 2004, 57-76 orr.
- L'HORTY, Yannick. «La opinión de los franceses sobre el RMI se ha vuelto mayoritariamente negativa en los últimos años» (Elkarrizketa), en *Hilero Eguneratuz*, 63. zenbakia, Martxoak, 2006, 7-8 orr.
- MARGALIT, Avishai. *La sociedad decente*, Paidós, Barcelona, 1997.
- MARTÍNEZ TORRES, María. «Rentas mínimas autonómicas en España. Su dimensión espacial», en *Papeles de Trabajo*, 33. zenbakia, Instituto de Estudios Fiscales, 2001.
- MEAD, Lawrence M. (Arg.). *The New Paternalism*, Brookings Institution Press, Washington D.C., 1997.
- MORENO, Gorka. *Crisis y reconstrucción del Estado del Bienestar. Las posibilidades de la Renta Básica de Ciudadanía*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2008.
- MORENO, Gorka. «La reforma del bienestar en los países anglosajones: una revisión crítica del Workfare», en *Revista de servicios sociales y política social*, n.º 81, 2008 (b), pp. 151-166.
- MORENO, Gorka. *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*, Ararteko, Gasteiz, 2003.
- MORENO, Luís. *Ciudadanos precarios. La «última red» de protección social*, Ariel, Barcelona, 2000.
- MORENO, Luís; MATSAGANIS, Manos; FERRERA, Maurizio; CAPUCHA, Luís. «Existe una malla de seguridad en la Europa del sur», *Lan Txostena*, 03-1, CSIC, en www.iesam.csic.es/doctrab2/dt-0317.pdf, 2003.
- PEÑA-CASAS, Ramón y LATTA, Mia. *Working poor in the European Union*, European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions en www.eurofound.eu.int/publications/files/EF0467EN.pdf, 2004.
- OINARRIZKO ERRENTA SAREA. *Estatutos de la Asociación Red Renta Básica*, en <http://www.nodo50.org/redrentabasica/textos/index.php?x=1>, 2001.
- RAVENTÓS, Daniel. *El derecho a la existencia*, Ariel, Barcelona, 1999.
- RAVENTÓS, Daniel. «El salario de toda la ciudadanía», en *Claves de Razón Práctica*, 106. zenbakia, en www.nodo50.org/redrentabasica/descargas/ClavesRentabasica.pdf, 2000.

- RAVENTOS, Daniel. *Las Condiciones Materiales de la Libertad*, El Viejo Topo, Barcelona, 2007.
- ROBERTS, Ellen. «Coordination of activation programmes for minimum income recipients. European experiences: a synthesis», Paper presented in the Workshop «Social Exclusion, minimum income support and workfare in Europe», en www.eurofound.eu.int/pubdocs/2000/74/en/1/ef0074en.pdf, 2001.
- SIIS. «La CAPV por debajo de la media en Políticas Activas de Empleo» en *Hilero Eguneratuz*, 53. zenbakia, Apirilak, 2005, 16 orr.
- TEZANOS, Jose Félix (Arg.). *Tendencias en desigualdad y exclusión social*, Sistema, Madril, 1999.
- VAN DER VEEN, Robert y VAN PARIJS, Philippe. «Una vía capitalista al comunismo», en *Zona Abierta*, 46-47. zenbakia, Urtarrilak-Ekainak, 1988, 19-45 orr.
- VAN PARIJS, Philippe (Arg.). *Arguing for Basic Income. Ethical foundations for a radical reform*, Verso, Londres, 1992.
- VAN PARIJS, Philippe. *Libertad real para todos. Qué puede justificar el capitalismo (si hay algo que pueda hacerlo)*, Paidós, Barcelona, 1996.

ELKARRIZKETATUTAKO PERTSONEN OINARRIZKO DATUAK

1. Elkarrizketa. Eusko Jaurlaritzako Gizarteratze Sailburuordea. Eusko Alkartasuna.
2. Elkarrizketa. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako Sailburuordea. Ezker Batua-Izquierda Unida.
3. Elkarrizketa. Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Ahalduna. Eusko Alderdi Jeltzalea.

LABURPENA: Artikulo honen bidez Euskadiko Autonomi Erkidegoan gizarte-bazterkeriaren aurkako politika publikoen ezaugarri nagusienak aztertzen dira. Horretarako, arlo honetan lan egiten duten arduradun politiko ezberdinak elkarriketatu izan dira. Lehenik eta behin, neurri eta programa garrantzitsuen aurkezpena eta hauen arteko harremana azaltzen da, administrazio ezberdinen eskumenak eta lan-eremuak azpimarratuz eta gizarte-bazterkeriaren aurkako politikek erakusten duten eskumenen banaketa bereziari arreta handia emanez. Bigarrenik, neurri hauen balorazioa egiten da, elkarriketatutako pertsonen azpimarratutako gabezi eta ahuleziak aipatuz. Era berean hobetu beharko liratekeen elementuak lantzen dira. Azkenik, gaur egungo testuinguruan zein etorkizunean Herritartasun Oinarrizko Errentak izan ditzazkeen aukeren inguruan galdetzen da, arduradun politikoaren irizia jaso egin delarik.

HITZ GAKOAK: Gizarte-bazterkeria, Ongizate Estatua, politika publikoak, Oinarrizko Errenta.

RESUMEN: En este artículo se analizan las principales características de las políticas públicas de lucha contra la exclusión social que se desarrollan en la Comunidad Autónoma Vasca. Para ello, se han realizado una serie de entrevistas a los responsables políticos en esta materia. En un primer momento, se presentan las principales medidas y programas que se dan y su relación entre ellas, incidiendo en aspectos como la distribución competencial. En segundo lugar, se hace una valoración de las políticas existentes siguiendo las potencialidades y las limitaciones que apuntan las personas entrevistadas. Igualmente, se esbozan algunos elementos que podrían incidir en la mejora de estas políticas públicas. En un último apartado se pregunta acerca de las posibilidades que puede tener, tanto en el presente como de cara al futuro, una propuesta como la de la Renta Básica de Ciudadanía.

PALABRAS CLAVE: Exclusión social, estado de bienestar, políticas públicas, renta básica.

ABSTRACT: In this article there are analysed the characteristics of the main public policies centred on the fight against the social exclusion in the Autonomic Community of the Basque Country. For this, we have made a series of interviews to the political responsables of the areas that work in the fight against social exclusion. First, there are shown which are the principal measures and programs, and how they work. Later, these measures are evaluated, revealing and underlining the weaknesses and lacks highlighted by the interviewed people. Finally, we examine the opinion of the political responsables about the Basic Income of Citizenship, and there are glimpsed which could be the possibilities of this one, not so much in the present context as with a view to the future.

KEY WORDS: Social Exclusion, Welfare State, public policies, Basic Income.

